

# NAFARROAKO GOBERNUAREN EUROPAKO EKINTZA PLANA

## Oinarrizko ildoak

### Edukia

SARRERA .....	2
EKINTZA PLANEKO HELBURUEN ZEHAZTAPENA .....	4
JARDUKETA ILDOAK.....	12

## Sarrera

Bruselan Europako edo nazioarteko 1.500 erakunde baino gehiago daude presente, baita 160 enbaxada eta Europako lanbide elkarte eta federazio gehienak ere. Horrez gain, Brusela munduko prentsa zentro handienetako bat da, eta bertan aritzen dira atzerriko 60 banketxetik gora, nazioarteko 1.700 enpresatik, nazioarteko 300 abokatu kabinetetik eta aholkularitza-etxetik gora, bai eta nazioarteko 21 eskola ere.

Eskualdeei dagokienez, Eskualdeetako Lantaldeak eskainitako datuen arabera, Europako eskualde guztiek (350 inguru) eta hiri nagusiek dute ordezkari bat Bruselan nola edo hala egituraturik. Batzuetan bulego patronatuetan edo bestelako partzuergoetan bildurik antolatzen dira, operadore pribatuen partaidetzarekin ere bai zenbaitetan. Maiz, lurralde ordezkari horiekin batera sustapeneko sozietate publikoen bulegoak, zentro teknologikoak, unibertsitateak, eta abar aritzen dira.

Nafarroako Ordezkaritzak betetzen dituen eginkizunak Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen abuztuaren 28ko 129/2015 Foru Dekretuan daude zehaztuta eta, labur esanda, erakundeen ordezkari arduratzea, Europa mailako proiektuak eta harremanak lortzen laguntzeko sareetan parte hartzea eta eskualdea atzerrian sustatzeko politikan laguntzea dira. Zehazki, eginkizun hauek aipatzen ditu foru dekretuak:

- a) Europar Batasunaren aurrean Nafarroaren interesak ordezkatzeko eta babestea.
- b) Europako erakundeek hartzen dituzten erabakiei segimendua egitea eta arauak sortzeko prozesuetan informazioa lortzea, Nafarroarentzat interesekoak diren gaietan.
- c) Nafarroako sektore publiko eta pribatuarentzat enpresa eta finantza arloko aukerak aktiboki bilatzea.
- d) Foru Komunitatea atzerrian sustatzen eta proiektatzen laguntzea.
- e) Foru Administrazioaren eta Batasuneko erakundeen arteko harremanak koordinatzea, Nafarroarentzat interesekoak diren proiektuen jarraipena egiteko.
- f) Europar Batasuneko Eskualdeetako Lantaldearen lan jarraipena.
- g) Batasuneko politiken eta programen gaineko aholkuak eta informazioa ematea Nafarroako erakunde publiko eta pribatuei.
- h) Lankidetzan aritzea Espainiak Europar Batasunean duen ordezkariarekin eta, orobat, Bruselan dauden beste erkidego batzuen bulegoekin edo beste estatu kide batzuetako antzeko entitateekin.

Ekintza instituzionalari dagokionez, esan beharra dago Europar Batasunaren Tratatuak Eskualdeetako Lantaldea sortu zuela, hain zuzen ere, erregioak eta hiriak ukitzen dituen Batasuneko legediaren garapenean eragiteko helburuarekin. Erakunde horretan Nafarroako lehendakariak ordezkari du Foru Komunitatea. Gainera, Autonomia erkidegoen parte-hartzerako 2005eko Erabakiaren arabera, Estatuak txandakako sistema bat du erkidegoek Kontseiluan presentzia izan dezaten. Zentzu horretan, aipatzekoa da 2015eko bigarren seihilekoan Nafarroari egokitu zaiola ingurumen gaietarako ordezkari EBko Ministroen Kontseiluan. Badira ere Autonomia Erkidegoen Bruselako Bulegoen arteko Koordinaziorako Taldea, txandakakoa hau ere (Nafarroa taldeko buru izan zen 2015eko lehen seihilekoan), eta Europar Batasunaren gaineko Aferetarako Konferentzia. Nafarroako Parlamentuak bezalako beste erakunde batzuek ere EBko edo Europako Kontseiluko hainbat forotan parte hartzen

dute, hala nola Eskualdeetako Legebiltzarretako Lehendakarien Konferentzian edo Tokiko eta Eskualdeetako Botereen Kongresuan.

Ez da ahantzi behar, halaber, Europako Parlamentuarekin ez ezik Europar Batzordearekin ere komunikazio ona eta zuzena izatea oso garrantzitsua izan daitekeela, Batzordea baita tratatuen arabera Europako aurrekontua betearazten duena eta, orobat, tratatuak betetzen ez badira zehapen prozedurak hasteko eskumena duena.

Bigarrenik, azpimarratu behar da garrantzitsua dela Bruselan dauden sare eta erakunde ugarietan parte hartzea, besteak beste, haien kideei Europar Batasuneko funtsak eskuratzen laguntzeko xedea dutelako. Aipagarrienak dira Horizonte 2020 (10.000 milioiko aurrekontua 2015ean), enpresa txikietarako COSME programa (300 milioi euro 2015ean) edo hezkuntza, prestakuntza, gazteria eta kirola ukitzen dituen Erasmus+ (1.600 milioi euro 2015ean), beste askoren artean.

Hirugarrenik, Bruselako Ordezkaritzak Nafarroa kanpoan sustatzen laguntzeko helburua du eta, halaber, lehentasunezko zat jotzen diren beste eskualde batzuekiko harremana. Lehenengo paragrafoan esan bezala, Bruselan mundu osoko enbaxada, merkataritza ganbera, negozioigune eta nazioarteko elkarte gehienak daude ordezkatuta.

Ikusirik Nafarroako Gobernuaren Bruselako Ordezkaritzaren (NGBO aurrerantzean) eginkizunak nagusiki koordinaziokoak, dibulgaziokoak eta laguntzakoak direla eta egiteko transbertsala duela, hau da, Gobernuko departamentu guztiekin elkarrekintzan jarduten dela, baita beste eragile publiko eta pribatu batzuekin ere, ezinbestekoa da eginkizun horiek zehaztuko dituen Ekintza Plana diseinatzea, lehenik helburu argiak ezarriz eta gero horiek erdiesteko behar diren ekintzak xeheki azalduz.

### **Kontuan hartu beharreko alde zuzenak:**

- Azaltzen diren ekintzen eskumena ez dagokio soilik NGBOri; aitzitik, Nafarroako Gobernu osoak bere Europako ekintzarako estrategian burutu beharrekoak azaltzen dira.
- Agiri honetan azaltzen diren ekintzak ez dira nahitaez berriak. Azken hamarkadetan esparru honetan aritu diren Nafarroako Gobernuko zerbitzuek dagoeneko garatu izan dituzte ekintzetako asko. Agiri honen asmoa da jarduera horiek ordenatzea eta Gobernu barruan sendotzea eta hobeki koordinatzea.
- Batzuetan zaila izanen da plan honetan sar daitezkeen ekintzak Gobernuaren beste plan batzuetan sartuko diren bitartean bereiztea. Horren adibide garbi bat Nafarroako Enpresak Nazioartekotzeko Plana izan daiteke. Horrenbestez, funtsezkoa izanen da plan desberdinen arteko koordinazioa.

# Ekintza Planeko helburuen zehaztapena

Hiru helburu aztertuko dira:

- 1. Nafarroak Europako erakunde eta organismoetan duen presentzia instituzionala indartzea.**
- 2. Europar Batasuneko funtsak eskuratzeko orduan Nafarroako entitateen itzulkina hobetzea.**
- 3. Nafarroa kanpoan sustatzeko estrategiari laguntzea.**

## 1) Nafarroak Europako erakunde eta organismoetan duen presentzia instituzionala indartzea.

Europar Batasunak makina bat erakunde eta organismo ditu bere eginkizuna betetzeko, eta askok Bruselan dute egoitza. Parlamentua-Kontseilua-Batzordea hirukoaz gain, badira Nafarroarentzat berebiziko garrantzia izan dezaketen beste organismo batzuk, beraz, funtsezkoa da horietan aktiboki esku hartzea.

- **Europako Batzordea:** Europako Batzordeak legegintza ekimeneko eskumenak ditu, europar zuzenbidea behar bezala ezarri dadila zaintzeko ardura du eta, zuzenean nahiz zeharka, EBko programa eta funtsen zati handi bat kudeatzeaz arduratzen da. Ez dezagun ahaztu, esaterako, Horizonte 2020 programak 80 mila milioi euro inguruko aurrekontua duela 2014-2020 rako.

Horrenbestez, ezinbestekoa da Europako Batzordearen ekimenak ezagutzea Gobernuaren politikak antolatzeke eta hobeki posizionatuta egoteko. Adibidez, Europako Batzordeak hondakinei, birziklatzeari eta industria politikaren beste alderdi batzuei eragiten dieten legegintzako neurriak biltzen dituen "ekonomia zirkularrari buruzko pakete bat" iragartzen badu, bistan da Nafarroan egitasmo hori ongi ezagutzen bada eta gaiari zabalkundea ematen bazaio, Gobernuaren politika hobeki posizionatuta egonen dela eta, orobat, etorkizunean bete beharko dituen konpromiso legalei aurreratu ahalko zaiela. Laburtuz, Gobernuarentzat errazagoa izanen da esparru sektorialen plangintza egitea.

Era berean, Batzordearekin harreman zuzena eta erraza izatea funtsezkoa izan daiteke deialdiak ongi ulertzeko eta, ondoren, hobeki posizionatzeko. Dezentralizaturik dauden programa batzuetan Estatu kideetako ministroak arduratzen dira kudeaketaz. Beste batzuetan, Europako Batzordeak zuzenean antolatzen eta kudeatzen ditu deialdiak, batez ere berrikuntza politikekin lotutakoak. Nolanahi ere, ezin da ahaztu Tratatuaren arabera Batzordeari dagokiola aurrekontua kudeatzea eta programa guztietan lehentasunak finkatzea.

- **Europako Parlamentua:** Tratatuaren arabera, EBko legegintza eginkizuna dagokio, Kontseiluarekin batera. Parlamentuak rol erabakigarria eta eragin handia du Europako Batzordearen aurrean, eta oso garrantzitsua izan daiteke Batzordean eragiteko orduan. Horren adibide bat da eskualdeetako egitura funtsak erabiltzea bikoiztutako azpiegiturak egiteko (esaterako, Zangozan, CENER-en Wind Turbide Test Laboratory delakoa).
- **Kontseilua:** autonomia erkidegoek beren eskumen osoko gaitan European parte hartzeari buruzko akordioei jarraituz, Nafarroak Kontseiluko sei erakundetan esku hartzen du. Gainera, aurrez finkatutako egutegiaren arabera, parte-hartze horiek gainerako erkidegoekin koordinatzea egokitzen zaio. 2015eko bigarren seihilekoan Ingurumeneko Kontseilua koordinatu zuen eta 2016ko bigarren seihilekoan Lehiakortasunaren eta Jokoen arloan gauza bera egitea egokituko zaio.
- **Eskualdeetako Batzordea:** Eskualdeetako Batzordea kontsulta organo bat da, EBko eskualde guztien eta hiri nagusien topagune handia. Kontsulta foroa izaki, Batzordearen ekimenei eta Europako gaurkotasunari buruzko informazio iturri bikaina da. Bigarrenik, testuinguru instituzionalizatu batean Europako gainerako eskualdeekin harremanak izateko aukera ematen du. Urtean 5 osoko bilkura egiten ditu, eta horien arten bereziki aipatzekoak dira urrian egiten diren "Infodays" delakoak, non Europako proiektuak aurkezteko 350 saio edo mintegi baino gehiago egiten diren eta 5000tik gora eragilek parte-hartzen duten eskualdeen, zentro teknologikoen, enpresen eta gainerako interesdunen izenean.
- **Autonomia Erkidegoen Bruselako Bulegoen arteko Koordinaziorako Taldea:** autonomia erkidegoak Bruselan talde honen bidez koordinatzen dira. Baliagarria izan daiteke esparru batzuetan, besteak beste Europako Batzordearen aurreko solaskide gisa jokatzeko duenean.
- **Europar Batasunaren gaineko Aferetarako Konferentzia:** Estatuaren eta autonomia erkidegoen arteko lankidetzarako organoa da. Erkidegoen eskumenak ukitzen dituzten EBko politika guztietan haien partaidetza ahalbidetzea du xede. Partaidetza hori eraginkorra izan dadin lankidetzarako prozedura horietan sartzen dira bai behetik gorako fasea, Europako erakundearen erabakiak hartzeko prozesuetan Espainiak izanen duen jarrera finkatzen laguntzen duena, bai goitik beherako fasea, EBko zuzenbidea eta politikak Espainian aplikatzeari dagokiona. Hemen erabakiko da zer jarraipen egingen zaion Estatuko Administrazioaren eta autonomia erkidegoen baterako partaidetzari Europar Batasuneko Kontseiluko erakundeetan, Europako Batzordeko komiteetan edo mugaz gaindiko lankidetzara instrumentuetan.
- **Eskualde arteko organismoak:** Nafarroak Pirinioetako Lan Komunitatean eta Eskualde Periferikoen eta Itsasaldekoen Konferentzian parte hartzen du. Bestetik, laster batuko da "Akitania-Euskadi Euroeskualdea" Lurralde Lankidetzarako Europako Elkartera.
- Horrez gain, Ordezkaritza lagungarria izan daiteke Nafarroak beste foro batzuetan duen partaidetzarako:
  - Eskualdeetako Legebiltzarretako Lehendakarien Konferentzia.

- Tokiko eta Eskualdeetako Botereen Kongresua (Europako Kontseilua).

**Eztabaidarako gakoak:**

- Nafarroaren betebeharrak Europan eta Espainian.
- Funts eta programetan posizionamendu hobea izateko harremanak.
- Ekimen zehatzen edo nahitaez bete beharreko legediaren ezarpen edo transposizio hobeak izateko harremanak.

## 2) Europar Batasuneko funtsak eskuratzeko orduan Nafarroako entitateen itzulkina hobetzea.

Eskaintza eta proposamenak prestatzen direnean eskualdeko enpresa, zentro teknologiko eta unibertsitateetarako funtsak lortzeko, europar programetatik edo bestelako iturrietatik (adibidez, Europako Batzordeko zuzendaritza nagusiek berek, partzuergoek eta Europa mailako ekimenek antolatutako deialdi eta lizitazioetatik), aurretik zehaztutako metodologia edo estrategia bati jarraitu behar zaio Nafarroak arrakasta handiago izatea nahi bada, hots, itzulkina hobetuko bada. Bruselan jazotzen denari buruzko informazioa eta ezagutza funtsezkoa da. Jakina, Europako programei eta finantzetarako beste aukera batzuei buruzko informazioa erraz eskuratzeko bideak behar dira eta zabalkunde kanpaina bat egin beharra dago.

Halere, funtsezkoena hasierako "plan" bat izatea da, helburuen lehentasunak ezarriko dituen ahaleginak behar diren alderdietan kontzentratzeko. EBko funtsak eskuratzeko prozesu bati ekiteko funtsezkoa da plan sektorialak izatea: Gobernuak, zentro teknologikoek, sozietate publikoek eta are operadore pribatuak ere izan beharko lituzkete. Zenbaitetan, beharrezkoa izan daiteke dauden premien gainean ideiak trukatzeko edo adierazteko foro eta guneak sortzea, gero plan batean garatu ahal daitezkeen eta, azkenean, Europako Batzordearen edo Europako beste organismo batzuen programetan sartzeko edo diru-laguntzak eskuratzeko.

Izan ere, une honetan eragile bakoitza (zentro teknologikoak, unibertsitateak eta enpresak) bere kasa mugitzen da oro har, banaka, Europako finantzetara eskuratzeko orduan. Horietako bakoitzak, banaka, partaidetzarako bere estrategia izaten du: partaidetza horrekin bultzatu nahi dituen helburu teknologikoak edo finantza helburuak, zer programatarako jo, lehentasunezko zer bazkide izan nahiko lituzkeen, etab. Egoera hau ohikoa da edozein eskualdetan eta ez da txarra berez, baina eskualde mailako garapen estrategia bultzatzeko ikuspegia falta zaio.

Horrenbestez, **esperientziak ez ezik interesak ere partekatzeko aukera ematen duen foro edo gune** batek ondoko hauek erraztuko lituzke:

- Administrazioak, unibertsitateak, zentro teknologikoak eta enpresek batera parte hartzea munta handiagoko proiektuetan. Europako programetan gero eta gehiago baliatzen dira proiektu pilotuak eta horrelakoetan administrazioak (eskualdekoa zein tokikoa izan) ezinbesteko eginkizuna betetzen du, trakzio entitate gisa. Eskualdearen posizionamendurako estrategiak eskualdeko gainerako eragileak ere hartu behar ditu kontuan. Eta ekimenean engaiatu nahi duten ikerketa entitateak eta enpresak, hots, trakzio enpresak identifikatu behar dira.
- Eskualde Garapeneko RIS3 helburuekin loturiko estrategia diseinatzea funtsak eskuratzeko ("funtzen arteko sinergiak"), Nafarroako Gobernuak foro horretan parte hartuko duelarik.
- Lankidetzaren publiko-pribatua, lurralde ahulenetan garapen iraunkorra eta berrikuntza bultzatzeko.



Oro har, Europako programetan parte hartzeko, ezinbesteko eskakizuna da gutxienez hiru estatu kidetako hiru entitatek osatutako partzuergoak eratzea. Horrek ehunka sare eta bestelako antolamenduak sortzea ekarri du, eta gehienek Bruselan dute egoitza. Funtsezkoa da horiek ezagutzea, behar den informazioa eskuratzeko ez ezik, proiektuetan hobeki posizionatzeko. Izan ere, hauteman dugu sareak berak ari direla EBko programen deialdietara aurkezten, koordinatzaile zein bazkide moduan. Gainera, esan behar da sareen agendak aztarnak eman ditzakeela deialdietarako gaiak edo interesguneak zeintzuk izan daitezkeen jakiteko eta, azkenik, gogoan izan behar da sareak bazkideak aurkitzeko giltza izan daitezkeela.

Bruselan makina bat bilera, mintegi, lantegi, aurkezpen eta abar izaten dira, bai lehen aipatutako sareek antolatuak, bai zuzenean Europako Batzordeak, Eskualdeetako Batzordeak edo beste edozein organismo publiko edo pribatuk antolatuak. Beraz, funtsezkoa da burutzen dituzten jarduerak ezagutzea eta hedatzea. Horri guztiari esaten zaio "agenda".

Programei eta deialdiei buruzko informazioa lortzeko hainbat iturri dauden arren, lagungarria izanen litzateke informazioak lehen aipatutako sareekin eta agendarekin lotura balu.

Horiek horrela, Nafarroak plan sektorial estrategikoak behar ditu, adibidez, Zentro Teknologikoen Plana, Energia Plana..., eta horiekin koordinatu eta/edo bateratu beharko litzateke Europako Ekintza Plana.

### **Eztabaidarako gakoak:**

Itzulkin hobe lortzeko gakoak zehaztea, Europako Ekintza Planari dagokionez, konparazio batera:

- Gobernuaren eta sozietate edo ente publikoen plan sektorialekin koordinatzea eta Nafarroako Gobernuak finkatutako Eskualdeko Garapen Estrategia bultzatzen gehien lagun dezaketen proiektuak edo proiektu motak identifikatzen laguntzea.



- Programa eta deialdiei buruzko informazioa eta, orobat, Europako beste ekimen estrategikoei buruzko informazioa intereseko gaien arabera.
- Nafarroan giltzarri diren entitateen (zentro teknologikoak, unibertsitateak, enpresak) ikusgarritasuna eta posizionamendua indartzea, kanpora begira, beren profilak hedatuz (baliabideak, gaitasunak, azpiegitura eta Europako proiektuetan duten esperientzia) besteak beste <http://na.bruselas.site/es> webgunean.
- Bruselako agenda.

### 3) Nafarroa kanpoan sustatzeko estrategiari laguntzea.

Brusela Europar Batasuneko hiriburua da. Hantxe daude mundu osoko merkataritza ganberak, baita enbaxadak, multinazionalak, enpresa federazioak eta abar luze bat ere. Eskualdeetako garapen ekonomikoa bultzatzeko helburua duten lankidetzaren sareen topagunea ere bada. Ordezkaritzari ez dagokio Nafarroa kanpoan promozionatzeko eskumena, baina begi bistakoa da Gobernuarekin edo Sodena moduko beste erakunde batzuekin elkarlanean aritu behar duela europar esparruan egiten dituzten ekintzetan. Jarduera hau Brusela ingurura mugatu daiteke, edota hiri horretan dauden organismoak balia daitezke ekintza esparrua zabaltzeko.

Ordezkaritzak Nafarroako espezializazio adimentsuaren estrategia eguneratzen lagunduko du, horrek markatuko baititu Ordezkaritzaren harremanetako lehentasunak, Nafarroak bere espezializazioko esparrutzat ezartzen dituen eremuetan merkataritza harremanak ezartzeko edo proiektuak finantzatzeko aukera onenak ematen dituztenak indartu daitezken. Era berean, Nafarroa Nazioartekotzeko Planarekin eta hartan helburu gisa ezarritako arlo tematiko eta geografikoekin koherentzia duten merkataritza harremanak ezartzea lehenetsiko da.

Programa jakin batzuetarako estrategikoak izan daitezkeen herrialdeetako enbaxadekin harremanetan jartzeko aukera dago. Esaterako, Batzordeak European Neighborhood Instrument – ENI izeneko auzotasun tresna sortu zuen herrialde batzuekiko harremanetarako (Magrebeko herrialdeak, Israel, Ukraina...) eta, halaber, atxiki aurreko tresna delakoa ere bada Albania, Montenegro, Serbia, Islandia edo Turkia moduko herrialdeetarako. Funts hauek deialdi publikoen bidez adjudikatu ohi dira, baina ezin da ahaztu kasuan kasuko herrialdeek ere badutela horiek adjudikatzeko eta kudeatzeko arduraren parte bat.

Hirugarrenik, Europako Batzordeak industriari eta enpresa txiki eta ertainei laguntzeko politikak ditu, Nafarroako enpresentzat oso interesgarriak izan daitezkeenak. Gainera, COSME moduko programez edo Juncker Planean iragarritako ekintzez gain, beste hainbat baliabide daude, hala nola Hazkundearen Zuzendaritza Nagusiak (Growth DG) onetsitako enpresa garapeneko planak, ELAN Network (EBko eta Latinoamerikako enpresen sarea), Espezializazio Adimentsurako Plataforma eta abar. Testuinguru honek Nafarroako enpresen merkataritza aukerak bultzatu edo zabaldu egin ditzake. Nafarroa Nazioartekotzeko Planeko ekintzekin bat datozen helburuak lehenetsiko dira.

Laugarrenik, EBko eskualde desberdinak aspalditik ari dira elkarren arteko lankidetzaren sektorialeko akordioak ehuntzen gai askotarako. Hona hemen adibide batzuk: [Silicon Europe](#), [BioInnovation Growth mega-Cluster](#) (BIG-C) edota [Clustrat](#), hiru bakarrik aipatzearen. Esparru sozioekonomiko orotan eskualdeen artean dagoen lankidetzaren da Europar Batasuna lotzen duen benetako argamasa. Hainbeste aukera daudenez, gure estrategiarekin bat datozen garapen ekonomikoko arloak bultzatzen dituztenak hautatuko ditu Ordezkaritzak. Era berean, Gobernuak egiten dituen eskualdeen konparazioko azterlanak kontuan izanik, ikusiko du zein eskualderekin izan daitezkeen alde biko harremanak batezbetekoa baino emankorragoak eta gehienez 5 hautatuko ditu; Flandria eta Gales izan daitezke horietako bi. Azkenik, Europako mugikortasun edo turismo proiektuak (Eurovelo kasu) bultzatzen lagunduko du. Nafarroa dagoeneko ari da beste eskualde batzuekin horrelakoetan lankidetzan, batez ere Atlantikoko ardatzean.

## Eztabaidarako gakoak:

- Enpresa sustapenerako organismoekiko harremanak Bruselan.
- EBrekin lankidetzak programak dituzten auzoko herrialdeekiko harremanak.
- Industriari eta enpresa txiki eta ertainei laguntzeko EBko programetan Nafarroak duen partaidetzaren dibulgazioa eta promozioa.
- Alde biko edo alde anitzeko akordioak indartzea EBko beste eskualde batzuekin.
- Hainbat eskualderen arteko "balio kateak" ezartzea<sup>1</sup>.

---

<sup>1</sup> Ekonomia auspitzeko beste eskualde batzuekin elkarlanean nola aritu gaitezkeen da gakoa. **Konparazio batera**, Nafarroako Gobernuak lehentasunezko jarduketatzat joko balu bioindustriaren sektorea bultzatzea, beharbada hainbat eskualderen arteko balio katea ezarri beharko litzateke balio kateak ongi funtziona dezan, hauek barne hartuz: berariazko laboreak garatzea, biomasa lortzea, "building blocks" delakoak lortzeko prozesu biokimikoen garapen esperimentalak, prozesuen eskalatzea, aurrez aipaturiko "building blocks"-etan oinarrituriko bioproduktuak garatzea eta bioproduktu horien banatzea.

# Jarduketa ildoak

## 1. helburua: Nafarroak Europako erakunde eta organismoetan duen presentzia instituzionala indartzea

**Puntu honetan ekintzak zeharkakoak direla ulertzen da, alegia, lehen zehaztutako gako guztiei eragiten dietela:**

- Nafarroaren betebeharrak Europan eta Espainian.
- Funts eta programetan posizionamendu hobea izateko harremanak.
- Ekimen zehatzen edo nahitaez bete beharreko legediaren ezarpen edo transposizio hobeak izateko harremanak.

### **Ekintzak:**

- Kontseilaritzen eta Ordezkaritzaren arteko harremanak koordinatzea eta horretarako **Europako Gaietarako Departamentu arteko Koordinazio Batzordea** eratzea, EBren aurrean Gobernuak izanen duen ekintza koordinatzeko eta informazioa banatzeko balioko duen foroa. Batzorde horrek bere barne araudia idatzi beharko du.
- **EB intraneta** sortzea, departamentuen artean informazio trukea errazteko.
- **Batzordea:** departamentu desberdinek dute nolabaiteko komunikazio jariora Europako Batzordeko ordezkariekin. Komunikazio horiek koordinatu egin beharko lirerateke, maiz sektore bati baino gehiagori eragiten diotelako eta sinergiak aprobetxa daitezkeelako.
- **Kontseilua:** detektatu behar da nork egiten dien jarraipena sei kontseiluei, era berean, Gobernuaren jarduketa orokorrak koordinatzeko. Gaur egun ez dago kontseilaritza bakoitzeko harremanak jasotzen dituen **erregistrorik**. Horregatik, **Kontseilu sektoriale** jarraipena egiteko arduradunen **erregistroa (ikus 1. eranskina)** sortu beharko da.
- **Eskualdeetako Batzordea:** Eskualdeetako Batzordearen txostenei egindako zuzenketak edo ekarpenak inplikaturako kontseilaritzekin koordinaturik prestatu behar dira. Era berean, komunikazio jariora ona behar da Batzordeak osoko bilkura bakoitzean eskaintzen dituen aukeren gainean, adibidez urriko Infodays-etara joatearen gainean, erakusleho aparta baitira europar eskalako proiektuak ezagutzeko eta ezagutzera emateko. Ekintza zehatzak, hauek:
  - Eskualdeetako Batzordean izanen den zuzeneko presentzia antolatzea ordezeko kide berri baten bitartez (Bruselako ordezkaria).
  - Koordinazio Batzordean zuzenketak idaztea.
  - Open days-etan Nafarroako operatzaileek izanen duten zuzeneko presentzia antolatzea.
- **Autonomia Erkidegoen Bruselako Bulegoen arteko Koordinaziorako Taldea:** oso mekanismo egokia da Batzordearen zuzeneko informazioa eskuratzeko, iragarriko diren deialdiei buruz nahiz araudiaren aplikazioari edo transposizioari buruz.

- **NGBOren koordinazioa** eskualdeko lankidetzaren organismoen kudeaketaren arduradunekin (Europar Batasunaren gaineko Aferetarako Konferentzia, Pirinioetako Lan Komunitatea, Eskualde Periferikoen eta Itsasaldekoen Konferentzia, Akitania-Euskadi). Urte hasieran finkatuko diren aldizkako bilerak egingen dira.
- Informazio jariorako **koordinazio foroa** sortzea, **tokiko garapenerako agentziekin**.
- **Nafarroako Parlamentuarekiko eta Europako foroetan ordezkaritza duten beste organismo batzuekiko koordinazioa.**

## 2. helburua: Europar Batasuneko funtsak eskuratzeko orduan Nafarroako entitateen itzulkina hobetzea.

Aurretik zehaztutako gakoetan sartzen diren ekintza zehatzen azalpena:

**Plan sektorialekin koordinatzea eta Nafarroako Gobernuak finkatutako Eskualdeko Garapen Estrategia bultzatzen gehien lagun dezaketen proiektuak edo proiektu motak identifikatzea.**

- **Etengabeko topagune sektorialak** ezartzea Bruselako Ordezkaritzaren, Gobernuko departamentuen eta esparru publiko zein pribatuko eragile edo erakundeen artean. Sektore zehatzak hautatzea eskualdeko estrategian eta eskualdeko enpresen euskarrian oinarriturik. Foro desberdinetarako finantzaketa aukeren diagnostikoa egitea.
- Topaketak egitea Ordezkaritzako, Nafarroako Gobernuko eta toki entitateetako ordezkarien artean, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak (NNUKF) koordinaturik, Europako gaiez aritzeko, baloratzeko zeintzuk diren egiaz eskuragarriak entitate bakoitzarentzat, eta zein modutan jo daitekeen horiek eskuratzera arrakasta aukerak izanik.
- Orobat, Nazioarteko Proiekzioaren Zerbitzuarekin batera, etengabeko topaketa foro bat ere ezarri behar da Gobernuaren politika Europako beste lankidetzako organismo batzuekin koordinatzeko, hala nola Pirinioetako Lan Komunitatearekin, Arku Atlantikoarekin edo Akitania-Euskadi Akordioarekin (1. helburutik dator).
- Funtsezkoa da kontseilaritza bakoitzak Europako Ekintzako gakoak idaztea. **Kontseilaritzen plan sektorialek** EBko lehentasunak NGraren hurbilazten lagunduko dute. Gauza bera esan daiteke Europar proiektzioa izan dezaketen sozietate edo ente publikoek.
- **EBko erakundeekiko komunikazio zuzena** izateko bideak aktibatzea, adibidez, Bruselako erakundeetan lan egiten duten nafarren sarea.
- Halaber, garrantzitsua izanen litzateke urtean hirutan gutxienez nazioarteko topaketak antolatzea (ekitaldiak, mintegiak zein bestelako topaketak izan daitezke) horietara Nafarroarentzat garrantzitsuak diren pertsona fisiko edo juridikoak gonbidatuz.
- Eskualdeetako funtsen eta Horizonte 2020 programakoen arteko sinergiak aurkitzeko laguntza<sup>2</sup>.

**Programa eta deialdiei buruzko informazioa eta, orobat, Europako beste ekimen estrategikoei buruzko informazioa.**

- EBko programen **zabalkunderako ataria** sortzea. Deialdiei, sareei eta Bruselako agendari buruzko informazioa bilduko du, eta aukera emanen du informazioa jasotzeko harpidetza egin edo alerta sistemak aktibatzeko, gaika edo sektoreka (adibidez, ingurumena, osasuna...).

<sup>2</sup> 2017tik aurrera Europako Batzordeak puntuazio hobea emanen die ESIF funtsen eta eskualdeetako funtsen erabilera sinergikorako estrategia duten eskualdeetatik datozen eragileek proposamenei.

- Ordezkaritzak **fitxa teknikoak** prestatuko ditu EBko ekimenak eta lehentasunak zabaltzeko eta departamentuei edo interesdunei jakinarazteko.
- **Informazio publikoko kanpainak** egitea Nafarroan EBko ekimenak eta lehentasunak ezagutarazteko, Nazioarteko proiektuarekin elkarlanean.
- Gobernuko eragile desberdinek, sozietate publikoek eta zentro teknologikoek Bruselan lantzen dituzten ekintzen gaineko koordinazioa hobetu behar da. Horretarako gomendagarria da **EBko proiektuen erregistroa** sortzea, organismo bakoitzak oinarritzko informazioa sartu ahal dezan aurkeztu dituen edo esleitu dizkieten proiektuei buruz.
- Aurreikusi behar dira **Foru Komunitateko Administrazioako langileendako prestakuntza ekintzak** Europako gaietarako buruz.
- Aditech-ekin eta zentro teknologikoekin koordinatzea, programen zabalkundeari dagokionez (adibidez, KIC, infodays...).
- Unibertsitateen ordezkaritzak duten bulegoekin koordinatzea (adibidez, Campus Iberus) programak zabaltzeko eta bazkideak erakartzeko.

**Nafarroako entitateen (zentro teknologikoak, enpresak, unibertsitateak) ikusgarritasuna eta posizionamendua hobetzea, kanpora begira, zabalkunderako atari bat sortuz. Atari horretan Nafarroari eta entitate horiei buruzko informazioa jasoko da (baliabideak, azpiegitura, zerbitzuak, esperientzia) kanpoko entitateek beren proiektuetarako bazkide potentzial gisa identifikatu ahal ditzaten Nafarroako entitateak.**

- Era berean, **sareen erregistroa** sortzea aurreikusi behar da, operadore publikoak dagoeneko zer saretara dauden atxikita jasotzeko (adibidez, NELS sarea ICLEI sarera atxikita, etab.).
- **Lehentasuneko sareen zerrenda** prestatzea, hau da, Nafarroak parte hartu behar duela uste den sareen zerrenda. Zerrenda hori kontseilaritza bakoitzaren plan sektorialen arabera prestatuko da.
- Etengabeko topagune sektorialetan ezarritako esparruetan trakzio enpresa izan daitezkeenak identifikatzea, arlo tematikokoa.
- **Ekitaldiak** antolatzea (bilerak, harrerak, bisitaldiak) eta, orobat, Gobernuak edo ente publiko edo pribatuak **Bruselan** parte hartzeko misioak.
- NGBOren, NGko arduradun zerbitzuen edo kontseilaritzen eta Aditechek (eta zentro teknologikoen) arteko **koordinazio protokoloak ezartzea Europa mailako eskualdeetako ekimenetarako**. Adibidez, Vanguard Initiative delakorako. Ekimen bakoitzarekin, NGBOk koordinazio protokolo bat prestatuko du eta dagokion kontseilaritzari proposatuko dio, baita Aditechek ere<sup>3</sup>. Beste adibide bat: Europako Itsas Eskualde Periferikoen Konferentzia (Arku Atlantikoa).

3

Adibidez, hau izan liteke eragile desberdinen arteko lan banaketa Vanguard Initiative moduko Europa mailako eskualdeetako ekimen baterako:

- NGko Ordezkaritzaren eginkizunak:
  - Parte hartzea bilera orokorretan eta lantaldeetan (VPM)
  - Aktak idaztea eta informazioa ematea Aditechek, Gobernuari eta egon daitezkeen beste interesdunei.
  - NGrekin eta Aditechekin (+balizko interesdunekin) eginen diren aldizkako koordinazio bileren agenda prestatzea. Astean behin Bruselan, bi astean behin Brusela-Iruña artean.
- Aditechek eginkizunak:

- **Europako bazkideak bilatzeko eskaria erregistro bakar baten bidez bideratzea.**
- Nafarroako entitateen (zentro teknologikoak, enpresak, unibertsitateak) ikusgarritasuna eta posizionamendua hobetzea, kanpora begira, zabalkunderako atari bat sortuz. Atari horretan Nafarroari eta entitate horiei buruzko informazioa jasoko da (baliabideak, azpiegitura, zerbitzuak, esperientzia) kanpoko entitateek beren proiektuetarako bazkide potentzial gisa identifikatu ahal ditzaten Nafarroako entitateak.

### **Bruselako agenda**

- EBko programen **zabalkunderako ataria** sortzea. Deialdiei, sareei eta Bruselako agendari buruzko informazioa bilduko du, eta aukera emanen du informazioa jasotzeko harpidetza egin edo alerta sistemak aktibatzeke, gaika edo sektoreka (adibidez, ingurumena, osasuna...).

- 
- Pilotuen bileretara joatea.
  - Jarraipena egitea, formularioak edo pilotuek behar dituzten bestelako agiriak prestatzea barne.
  - Ordezkaritzari informazioa helaraztea, NGrekin koordinatu ahal izateko.



### 3. helburua: Nafarroa kanpoan sustatzeko estrategiari laguntzea.

Aurretik zehaztutako gakoetan sartzen diren ekintza zehatzen azalpena:

#### Enpresa sustapenerako organismoekiko harremanak Bruselan

- Harremanak Bruselako nahiz Belgika osoko merkataritza ganbarekin, enbaxadekin eta antzeko foroekin. Abia daitezkeen ekintzak zerrenda batean jasotzea eta zehaztea.

#### EBrekin lankidetzak programak dituzten auzoko herrialdeekiko harremanak

- Honako hauetarako laguntza: merkataritza bazkideak identifikatzeko, bisitaldien agendarako, azoketara joateko edota kanpoan Nafarroari buruzko kanpainak aurkezteko.

#### Industriari eta enpresa txiki eta ertainei laguntzeko EBko programetan Nafarroak duen partaidetzaren dibulgazioa eta promozioa.

- Enpresa garapena laguntzeari dagokionez, Europako Batzordeak dituen programen eta ekintzen zerrenda prestatzea.
- Horien zabalkunderako ekintzak burutzea.
- Kanpoko promozioari laguntzeko EBko programetan parte hartu nahi duten enpresen erregistroa ezartzea. Komunikaziorako edo harremanetarako bide errazak ezartzea.
- Enpresei laguntzeko sareak sustatzea eta promozionatzea, konparazio batera European Enterprise Network (EEN).

#### Alde biko edo alde anitzeko akordioak indartzea EBko beste eskualde batzuekin.

- Auzoko eskualdeetako bazkideen arteko harremanak erraztea eta indartzea, elkarren ezagutza eta konfiantza horretarako aukera ona baitira. Alde biko edo alde anitzeko harremanak ezarri beharko dira interesekoak izan daitezkeen beste eskualde eta/edo herrialde batzuekin. Horretarako, **lehentasunezko eskualdeen** zerrenda prestatu beharko da. Orainxe dauden lan sareak zein Europako Batzordeak eskaintzen dituen S3 plataforma bezalako beste tresna batzuk baliatuko dira. Sektoreka egingen da lan (ez soilik teknologikoan).

#### Hainbat eskualderen arteko "balio kateak" ezartzea.

- Beste eskualde batzuetako zentro teknologiko eta unibertsitateekin harremanak ezartzea eta lankidetzan garatu nahi diren proiektu zehatzen zerrenda egitea.
- Nafarroaren eta hautatutako eskualdeen artean dauden **kointzidentzia eta osagarritasun teknologikoko** puntuak identifikatzea.
- Jarduketa teknologiko zehatzak identifikatzea, zeinetan identifikatutako eskualdeetako zentro teknologikoen, unibertsitateen eta enpresek parte har dezaketan (dagoeneko Vanguard inguruan hedatzen ari garen jardueraren antzekoa).
- Ondoko fase batean: misio teknologikoak, hainbat eskualdetako brokerage saioak, eskualde horietako stakeholders teknologikoen parte-hartzerarekin.

### **Ekintza transbertsalak:**

- SODENArekiko koordinazioa. Ekintza esparru zehatz bat prestatzea Europako testuinguruan SODENArek ekintzei laguntzeko.
- Nafarroako Enpresak Nazioartekotzeko Planari laguntzea.

## 1. eranskina

### AUTONOMIA ERKIDEGOEN KOORDINAZIOA EUOPAR BATASUNEN KONTSEILUAN 2017. URTEAN

Kontseiluko erakundea	Gaia	Konferentzia sektoriala	Erkidegoen ordezkaria Lehen seihilekoa	Erkidegoen ordezkaria Bigarren seihilekoa
Enplegua, Gizarte Politika, Osasuna eta Kontsumitzaileak	Enplegua eta Gizarte Politika	Lan Aferetarako KS (konferentzia arteko taldea)	Valentziako Erkidegoa	Asturias
	Osasuna	Osasun Sistema Nazionalako Lurralde arteko K.	Gaztela-Mantxa	Kanariak
Lehiakortasuna-Kontsumoa	Kontsumoa	Kontsumoaren KS	Murtzia	Valentziako Erkidegoa
Nekazaritza eta Arrantza	Nekazaritza	Nekazaritzaren eta Landa Garapenaren KS	Gaztela-Mantxa	Gaztela eta Leon
	Arrantza	Itsas Arrantzaren KS	Gaztela-Mantxa	Gaztela eta Leon
Ingurumena	Ingurumena	Ingurumenaren KS	Madril	Gaztela eta Leon
Hezkuntza, Kultura, Gazteria eta Kirola	Hezkuntza	Hezkuntzaren KS	Kanariak	Gaztela-Mantxa
	Gazteria	Gizarte Gaiaren KS (konferentzia arteko taldea)	Valentziako Erkidegoa	Asturias
	Kultura	Kulturaren KS	Kanariak	Gaztela-Mantxa
	Kirola	Kirolaren Lurralde arteko K.	Kanariak	Nafarroa
Lehiakortasuna-Jokoa	Jokoa	Jokoaren KS	Extremadura	Balear Uharteak

